

artu biar. Or dago Moguel Jauna, vascofillo ona, secula bada. Arek bere Peru Abarca ederrian diño Prantzes euscaldunac gaitic:

«Se valen también mucho de la letra *k*, y es mucho embarazo para los demás bascongados que no la usamos en voz alguna?»

¿Cer esan gura dau onec? *k* prantzesa dala ta gutiz torpia dala.

Ipinico neuquez *q* ta *c*-ren ganian beste gauza batzuc bere; baña gaurco naicua ta gueijegui da.

Ez chartzat artu. Ceu asarratucio ezpaciña, urren-go baten edo batzuetan esango neuquez beste berba bi.

Au cartiau periodicuan aguertu nai izan ezquero, ceure escuan dago; baña erregu bat, nire icenic ez aguertu. Nire icenen orde z ceuc nai dozun ecicena edo seudonimua artu ceinke. Nire errijen icenic bere ez ipiñi. Naz zurea etc.

VASCOFILLO (1).

## GABON-IPUINA

(Eskandinabiako Irakurgetia.)

### I

Orain urte asko, Kristian eritšon gudari edo soldau bat, guda askotan egonikoa ta euretari baten beso-bakoitž gelditua, Bakartegi (Monasterium) bateko atarira ioan zan. Bakartegi aren orma ondakinak ikusten eidira gaur bere Eskandinabiako mendietako edur-artean.

Bakartasuneko bakea nairik, atera urten eutsan bakartarrari, etše atantše bizi izateko guraria erakutsi eutsan.

Bertako nagosiak barruratu eban, da lenengo lenengotik izan zan bakartar beso-bakoitza beren bizilagunen iolasgarri ta barregarria. Esangina, eroapen andikoa ta berbetan aurrerea, toki askotako albistak iakin eragiten eutsezan. Beren berbetea etzan izaten, baina, bear zan baizen erazkoa garbia ta arteza; bein baino sarriago mindu ebazan entzuleen belarriak; eta agaitik nagosiak agiraka latz latza egin eutsan.

Kristianek apal apal entzun eban esan iakona; ta gabon-arratsaldean sutondoan, ikusi, ta aratu ibiltan direan umeak baino pozago gelditu zan, nagosian aotik baserririk baserri amarren-bila ibili bear ebala iakin ebanean.

Ibiltaldi baten, aintzira-urertzean mendi zorrotz

(1) Nik oso osorik agertu nai izan dot eskutiz au; izen bat ipini bear neutsan bialdu daustanari, ta etšat otu berak Mogel-i emonikoa baino egokiagorik: *Vascofillo*. Beren erria izenta bear izan dodan lekuan, Lariz ipini dot. Gaur eztaukat astirik; eta urren-go geian, Iaungoikoak nai badau, erantzungo dautsat.

edurtsu barrenean, arzulo edo koba bat aurkitu eban. Eguraldi tšarrakaitik baserrietan ibili ezin zanean, koba-barruan zurezko tresnaren batzuc egiten iarduten eban. Bein, aunts baten bernazakiaz berentzat beso-ordeko bat egiteko gogotan sartu zan; esku-orde ezpelezko mukur bat moldatuteko. Aurrerantzean eskerreko sorbaldatik beera, igarri ezindako moduan eutsita, aunts-azurrezko besoa ta ezpel-zurezko eskua erabilten ebazan. Bakarkideak gutzizko arrera ona egin eutsen, eurak legez beso-bikoitž ikusi ebanean.

Geroago ta sarriago egiten ebazan Kristianek ingurumari aretako ibiltaldiak. Beren sakutoetan edurmatasea legez iausten zirean parra parra eukitsuen ondasun-izkiak; eta ganera berak ian da edanala ogi ta ardao, edozein bizitokitan eskinten eutsezan. Bein baino sarriago eldu zan Bakartegira bear zan baino beranduago. Alako baten nagosiak arpegi itzalaz, «Kristian, esan eutsan: ik, dakustanez (1), beti egon gura dok sartu-barri, besteon antzera eskintzariak» (*botoak*) egin baga; bada geroago ta okerrago akust.»

Kristianek, parka-eskatuaz, erdi-negarrez da bene benetan zuzenduko zaneko berbea emon eutsan; da barriro zamari bat lagun ebala eskean asi zan.

Egun baten, nunbait emon eutsen ardaoak bear zan baino gorago igon eutsanean, lagun askon erdian soldautzako erezi (kanta) bat garraizitu eban. Bakartegian barri au iakinaz batera, tšantšana (aingerukanpae edo tšilina) nagosian aginduz io ta guztiak gela andian batu zirean; da, eritši bardinaz, Kristian kanpora bota bear zala erabagi eben.

Kristianek ezeutsan arpegiari ziririk eragin, naibagezko epai au entzun ebanean. Biderik galdu barik Elizara ioan zan, da Done Jertrudisen besoa egoan gorpuzki-ontzi-aurrean belaunikaturik, arrenka edo erreguka asi zan.

Gaberdi-inguruan, Bakartegiko nagosia Elizara bertara arren egitera iatzi zan, da Kristian ezautu ebanean, «Ene anaia, esan eutsan, ona emen ire zorriona. Iaungoikoan eritšia zirikatu bear dogu. Biar, gabon-eguna dan aldetik, baldin oso osorik eta zintzo ondu nai badok, izan leike zeruak igaitik mirari bat egitea.

«—Orretarako, nire damua ta garbaia bear badi-ra, miraria lortuko da: erantzun eban Kristianek.

«—Ona emen liburu bat, guk Erregentzat birregin bear doguna. Ik gau bakar baten, Iaungoiko gizondua iaio zan gabeen, liburu eder au birregin (kopiau) al badok, barriro Bakartegi onetan artuko augu.»

Kristianek, au entzueran, beren beso bakarrari iausten itšita, larri larri nagosiari esan eutsan:

(1) Aldi atan batak besteari ezeutsan zu esaten, *i* baino. Nai andikiak nai zarrak, nai dirutsuak nai ezaunzak, guztiak euken, banan banan berba egiten iakenean, *i* izentzat. *Zu* esanaz, batzuc adituten zirean.



«Ene Aita, iru urtean ezin dan arloa ¿gau baten zelan egingo dot?»

—Bigarrenez dirauat. Iaungoikoan eritšia zirikatu bear dogu. Benetan garbaatu ta damututa baago, ik eurez ezin dauana, Berak mirari batez egingo iok.»

Kristian gaisoak, zerbait gogoratuten egonda gero, onetara berba egin eutsan nagosiari:

«Onetarako gauza bat ogetalau ordutan euki gura neuke.

—¿Zein da?

—Aor barruan dagoan Done Jertrudisen besoa.

—Tira bada.»

## II

Kristian, nagosiari agur egindakoa, beren kobarantz ioan zan. Koba-aurreko aintzirea leituta egoan. Larrapastada baten igaro eban ertz batetik besterako unea. Bizi-tokira sartu zanean, lankai-ganean iezarri zan lenengo; gero auspaz iarri ta uluka esan eban: «Satanas, atorkit. Zeruaz asarratuta nagoanezkero, lagundu bekik inpernuak». Lastertšu aitz baten arrakalatik gar atsitu-artean agertu zan deabrua ta esan eutsan beso-bakoitzari: «Aamen naukak, gudari elizgizondu orrek. ¿Zetarako nok?» Eta au esanaz irri-barreka, gudari-artean oituten dan antzeko agur bat egin eutsan, adar-ertzera erpeak eroanaz.

—Estualdi armin armin baten nago, ta zelan edo alan atara naik estualdi onetatik, al badok.

—Tira, al dot. ¿Baina zer emongo daustak saritzat? Sari bako traturik ezta egiten.

Kristianek, burua makurtuaz, kinu egin eban, besteak ez ikusteko eran. Burua iaso eban, beren albokoak esan eutsan:

Nik orain estualdi onetatik ataraezkero, ik aurrerantzean neuk nai dodan lekura iarraituko daustak ¿e?

—Nik iarraituko dauat, baina orretarako berba bat emon bear daustak euk.

—¿Zein da berba ori?

—Egubarri-eguna igaroezkero, eztok ik nigan ezetarik eskubiderik eukiko; eta bakar bakarrik eguerdiko tšilin-otsetik gaberdikora egongo nok ni ire mendean.

—Naikoa dot nik abagadune ori, adiskidea; nik eroango audan lekutik osteratu-orduko, mendi onetako ura urtu ta gorituko da.

—Beste gauzatšu bat oraindino. Bear dan moduztasuna niganako ik euki daian, eskerreko eskutik bakarrik oratuko daustak, ire bizi-toki-aldera ioaten lagundu bear daustanean.

—Tira, egiunea eginda dago. Saria ezta tšarra. Esan orain, nai dauan mesedea.

—300 aston narrua nai neuke.

—¿Olako gogorkeririk!

—Kontuz eratzita, narru orrek *pergaminozko* liburu bat egiteko izango dira. Onetarako margo edo kolore guztietako *tintea* bear dot; eta eugazkoa eukitearren,

edo eu bere pozik egon aitean, eure irudia ezarriko iautsaagu liburuari azpiko aldean. Baina gero amabi ordutan egin bear izango da liburua.

—Bai. Oraintše ipiniko dodaz lanean deabru tšiki-pilo andi bat, eta eurakaz batera arako Ierusalenen «eriotzea Kristori» deadar egin eben eskribauak. Errialde onetan eztago, otzegi dagoalako, guk nai doguzan bezte asto; baina ez estutu: inpernutik ekarri eragingo dot bear dan narru guztia.

Gauzak, esanda legez, gerta zirean. Gau guztian iardu eben lanean koba atan. Aintzirako ur leitu guztia lurrundu zan, auzoko deabruen berotasunaz. Mendi aretako tšori ta egazti guztiak luma barik agertu zirean urrengo egunean, liburua egiteko bear izan zirealako. Goizaldeko mesatarako tšilinak ots egin eban, Kristian, liburua besapean ebala, Bakartegiko nagosiagana ioan zan.

«Aita neurea, esan eutsan agertu iakanean, ona emen ik nai izaniko liburua.

—Ator ona neure besoetara, gizagaiso ori; zeruak mirari andi bat egin dau eugaitik. Bakarkide guztiak, arrera ona eginaz, pozik laguntzat artuko abe.

—Nik orain, euk aginduriko saria bear dot; neuk neure berbea iagon dodanezkero, iagoik euk eurea.

—Pozarren. ¿Baina zein da?

—Gaurko egun guztian Done Jertrudisen besoa neugaz eukiko nebala agindu eustan.

—Ator neugaz altararaino ta an artuko dok, gizon zerutar barrirazu orrek».

Kristianek atseginez artu eban zidarrezko ontzi Done Jertrudisen besoduna, ta ardura andiaz eroan eban bere koba itzalera. An, Iaungoikoari arren gartsu bat eginda gero, kendu eban sorbaldatik dingilizka eukan azurrezko besoa; ta beren ordezt Done Jertrudisena ipini eban. Iarri zan lankai-ganean, beste mutila noiz etorriko. Laster agertu zan au, gorritzko iantzirik, sua ta barrea eriozala.

«Aurrera laguna, esan eban Satanasek.

—Begira nengoan, eu noiz agertuko. Badakik gero zein dan gure egiunea. Nekatuta, eiota, arikatuta nago; ta oratuidak eskerreko esku onetatik, obeto ibili naitean.»

Deabruak, edurtzan erpe-markak itširik eta iutika Kristianegana urreraturik, eskua luzatu eban, gizonari eusteko ustean; da aida bere-atantše done Jertrudisen besoa, mailu baten gizan, gora ta bera asi zan, ukabilkada galantak Satanasi buruan emonaz.

«Praile buru-motsa ¿niri au? ¿au da egitekoa?»

Deabrua berbetan da intzirika egoanarte guztian, Done Jertrudisen besoak, zein da burdin-oletan gelditu bagarik ibiltzen direan gabien antzera, io ta io buru guztia adar da guzti zatitu eutsan. Burruka onek gaberdirarte iraun eban. Tšilin-otsen durundia il zanean, inguruko mendi-tontorretan tšinpart andi gorri gorriak edurra urtu eben. Kristian, iluntasun andian bakarrik gelditu zanean, Bakartegirako igitu zan; itši eban be-



ren lekuan beso miraritsua, ta azurrezko besoa sorbal-datik bera ipinita, besteakana ioan zan. Ezeban aurrentzean Bakartegitik urten. Antse il zan, arpegia bizar zuriz, gorputza tšimurrez, da arimea zerurako irabaziz beterik.

## GURE EUSLEAK

Bat edo batek au irakurrieran izan leike esatea ¿zer da *euslea*? Eulea, eulia, erlea, elea, elia, egilea, ekarlea ta osterantzeko *e-le* asko antšinatik dazauguz. ¿Zer dan *euslea*? *Euslea* da, Vascofillok *suscriptoria* esango leuskeona; *eustea* da aren *suscribidutea*, ta *euspena suscricinoia*.

Berbeari berari begiratuezkero, edozein elizsaguk daki *sub-scribere* beko aldean eskutiztu edo iratsi edo eskribidutea dana. EUSKALZALERI euren izena emon dautsenak barriz, batek bere eztau ez beian ez goian ezer eskutiztu. Euren izena emon dabenean, EUSKALZALERI, iausi ta il eztain, eutsi baino besterik eztabe egin.

¿*Eutsi* zer dan nok eztaiki? Iru berba dagoz (izan leike geiago egotea) *subscribere*-n ordezesan leikezanan: iaso, iroso ta eutsi. *Iasok* esan gura dau *levantar*, *lever*; da ganera *soportar*, *supporter*. *Iroso-k*, Bizkaian ezarren, *sostener*, *soutenir* esan gura dau. *Eutsi* ta erdaldunen *asir*, *empoigner* bardinak dira. Iru berba onetatik egokiena *eutsi* dala esan leike.

Berba orri ezarten iakazan *la* (*eusla* egiteko) ta *pen* (*euspen* egiteko), ezaun ezaunak dira.

*Entzula*, *igarla*, *ikusla*, *ikasla*, *irakasla*, *egila*, *gorula*, *eula*, *irula*, *iela*,... berba entzunak dira. *La* onek zerbait egiten dabena adierazoten dau. *Entzula*, entzuten dabena; *igarla*, igarten dabena; *ikas-*

*la*, ikasten dabena... ta bardin besteak. *Eusla* ta *eusten* dabena bat dira.

Iraupen (Uriarte: Maiatzeko loraac-102), eragozpen (Peru abar-ca 199,8), irakaspén (Lardizabal: Testamentu 10,22) ta amaiera bardineko beste berba batzuk, *la*-dunak baizen ezaunak izan ezarren, entzun da irakurten dira.

*Pen* onek eta beronen antzeko *men*-ek *mendi*-k eta *mendu*-k, erdaldunen *operacion*, *opération* iragarten dabe. Alkarren antz andia dauke berba-atal onek eta *tea*-k, baina ez tira bardin bardinak.

Ikusmena ta ikustea, irakaspéna ta erakustea, galména ta galdutea edo galtzea, itšaropena ta itšarotea, sinizména ta siniztea, irau péna ta irautea, ondaméndia ta ondatutea, itsuméndia edo itsuméndua ta itsupéna erdi-bardinak baino ez tira.

Giza onetanse *euspéna*-k eta *eustéa*-k, bakoitzak beren aldetik, erderazko *subscripcion*, *abonnement* esan gura dabe.

Gitši dira oraindino gure eusleak; baina geituko dira; euskerea maite dabéna eta irakurri al daiéna gitši ez tirealako.

Astean asteango albistari au, karua edo gareztia edo merke-eza balitz, gure erri onetan asko ta asko dagoz, sakela diruz baino biotza gogo onez beteago daukenak, eta aregaitik esku gitšitara elduko litzake. ¿Nun dago baina albistari merkeagorik?

Merketsuago argitaratu nai genduan; baina ezin leike. Albistari onek beste askon antzera, erdi-inguritik asita iragarriz (*anuncio*-z) beterik baleukaz beronen orriak, edo erderaz egin bear balitz, orduan merkeago emon al izango litzake, moldaginak errazago ta arinago egingo leukeelako.

Eusleak, irakurle utsen aldean, obari batzuk (asko ezarren) eukiko dabez; aurten inoiz baino gitšiago, inoiz baino arazopetuago gagozalako.

Dana dala, EUSKALZALEK, beren eusle ta irakurle guztiai, urte barri osasuntsu onbidetsu arin arin arin bat (zoriona arin ibiltén dalako) opa dautse, biotz biotzetik.

## MIRUA TA AMILOTŠA

O zein ikusgarria  
dan mazti bat ona  
matz ori-laru-zuriz  
beterik dagona:  
tširta bati goiz baten  
tšio tšioketan  
amilotšá asi iakan  
onantse berbetan.

—Adiskide kutuntšu,  
amilotš ederra  
¿kerizarik ezaldok  
sartu sabelera?  
Sarritšu oi dabilzan  
tšoriak maztian  
ega-astun sorrak dira,  
ak erantzun eutsan.

¿O zein negargarria  
dan gizon gordinak  
ezgauzakaitik keskan  
beti iardutea;  
ta muker ta ilunpean  
ausia ebatera,  
eriotza anka-arina  
arteratutea!

Matz-zale dozak erroi  
ta eskilasotzarrak  
¿Nok entzun kanta-ordeko  
euren karraskadaak?  
Atorkit, eder ori,  
keriza-adarrera;  
ian ian azpértu baga  
anpolai urmela.

—Keriza-azurrak saman  
eginezkero tšut  
¿nok atara, laguna?  
¿gingo aldaustak euk?

Miru zelatariak,  
estutuaz saman,  
amilotš gaisoari  
erantzun eutsan: neuk.